



PROPOSAMENA

Ebaluazioa zerbaiten balioa zehazteko gauzatzen diren jarduera sistematikoen multzoa da, ebaluatzen den horri buruz aurrez ezarritako helburuak bete diren aztertzeko eta horiek lortze aldera erabaki zuzenak hartzeko.

Sufragistei esker. Emakumeen botoaren ibilbidea ikasmaterialean bi jarduera-eredu proposatzen dira, bakoitza bere ebaluatze teknikekin:

- Testa. Ikasmaterialean eskaintzen diren edukien eta ikus-entzunezkoen ezagutza noraino lortu den jakiteko 10 galdera-erantzunez osatutako jarduera da. Ikasleak modu autonomoan nahiz taldean egin ahal izango du, betiere irakaslearen lan-metodologiaren arabera. Kasu honetan, ebaluazioa berehalakoa da; izan ere, testeko galdera-erantzun bakoitzean emaitza zuzena den edo ez esango zaigu ariketaren amaieran.
- Talde-dinamikak. Webguneko edukien gainean taldean landu beharreko jardueren ebaluazioa bi norabidetakoa izango da: batetik, ikasleak berak autoebaluazio- eta koebaluazio-fitxen bitartez bere lana eta taldearena balioetsiko du; bestetik, irakasleak ikasleak baloratu ahal izango ditu konpetentzia-fitxa eta aurretik ezarritako balorazio-irizpideen bitartez.

KRONOGRAMA

6 orduko proiektua da, betiere ikasleen erritmoaren araberakoa. Zatika ere erabil daiteke, nahierara.

Talde-dinamikei dagokienez, bakoitzari ordubete eskaintzea aurreikusten da.

EBALUAZIO-FITXAK

Hauek dira ikasleentzako ebaluazio-fitxak.




Autoebaluazioa


Ikasleak berak bere jardunari buruz egiten duena ebaluatzeko eta gainerako ikaskideekin partekatzeko, autoebaluazio-itua erabil dezake. Ebaluatzeko metodo hau parte-hartzailea da, oso bisuala, eta aukera ematen du landu nahi den proiektuaren hainbat alderdiri buruz ikasleek duten iritzia ezagutzeko.

Nola betetzen da autoebaluazio-itu bat? Zirkulu zentrokideak marraztuko dira, barrutik kanpora. Zirkulu horiek azaltzen diren ezaugarrien betetze- edo egokitze-maila adierazten dute. Zirkulu zabalaren inguruan, aztertu behar diren elementuen izenak jarriko dira (ikus irudiak, adibide gisa), eta, itua osatzeko, elementu horietako bakoitzari dagokion zenbakia idatziko da. Horrela, azkenean, puntuak lotuz, ebaluazio-mapa deritzona lortuko da. Hona hemen adibide sinple bat, non marra bakoitzak ezaugarri bat adieraziko duen:

Autoebaluazio-itua




Inprimatzeko irudia eskuragarri dago, ikasleak autoebaluazioa egiteko.




Autoebaluazioa

Nola sentitu zara talde-jardueran? Neurtu lorpen-maila, irakasleak paperean eman dizun autoebaluazio-itua erabiliz. Begiratu zer neurtzen duen ituaren zati bakoitzak eta markatu 1etik 4ra zer neurritan lortu duzun helburu hori (behean dituzu puntuazio bakoitzaren balioak). Bukaeran, lotu 4 puntuak, eta marraztu sortu duzun azalera (nahi izanez gero, azalera kolorezta dezakezu). Hori izango da zure lorpen-maila. Zenbat eta zenbaki altuagoa izan, orduan eta handiagoa izango da azalera; era berean, zenbat eta handiagoa azalera, lortutako helburuak are eta hobek izango dira.



Ebaluazioa



Koebaluazioa

Talde-lana ebaluatzeko tresna dugu koebaluazioa. Taldeko kide bakoitzak bere aldetik baloratuko du taula honetan proposatutako kategoria bakoitza. Ondoren, emaitzak bateratuko dituzte, eta puntu optimoak eta hobetu beharrekoak elkarrekin komentatuko dituzte.

KATEGORIA	OSO EGOKIA	EGOKIA	OINARRIZKOA	DESEGOKIA
1.-PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA	Taldeko kide guztiek parte hartu dute talde-dinamikan, eta ikaskideei lagundu diete.	Taldekide gehienek parte hartu dute zereginetan, eta ikaskideei lagundu diete.	Taldekideen erdiek parte hartu dute zereginetan, eta ikaskideei lagundu diete.	Taldeko kide batek bakarrik (edo batek ere ez) parte hartu du zereginetan, eta ez da lankidetzarik egon.
2.-ZEREGINEN BANAKETA	Zereginak zuzen banatu dira taldeko kide guztien artean.	Zeregin gehienak berdintasunez banatu dira taldekide guztien artean.	Zereginen erdiak baino ez dira zuzen banatu taldekide guztien artean.	Zereginak oso modu desberdinean banatu dira taldeko kideen artean.
3.-BESTE TALDEKIDEEKIKO JARRERA	Zeregin guztietan taldekideek beren iritziak eman dituzte eta besteenak entzun dituzte. Akordio batera iristeko gai izan dira.	Zeregin gehienetan, taldekideek beren iritziak eman dituzte eta besteenak entzun dituzte. Akordio batera iristeko gai izan dira.	Zereginen erdietan taldekideek beren iritziak eman dituzte eta besteenak entzun dituzte. Akordio batera iristeko gai izan dira.	Ez da elkarriketarik izan, eta, azkenean, ikasle bakar baten iritzia nagusitu da.
4.-ARDURA-HARTZEA	Taldeko kide guztiek beren zereginak eta erantzukizunak bete dituzte	Taldeko kide gehienek beren zereginak eta erantzukizunak bete dituzte.	Taldeko kideen erdiek beren zereginak eta erantzukizunak bete dituzte.	Taldeko kide batek bakarrik (edo batek ere ez) bete ditu bere zereginak eta erantzukizunak.

Balorazioa (Markatu atal bakoitzari dagokiona)

	OSO EGOKIA	EGOKIA	OINARRIZKOA	DESEGOKIA
1.-PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
2.-ZEREGINEN BANAKETA	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
3.-BESTE TALDEKIDEEKIKO JARRERA	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
4.-ARDURA-HARTZEA	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>



Hauek dira irakasleentzako ebaluazio-fitxak.

Konpetentzien ebaluazioa

Talde-dinamika guztietan konpetentzia hauek landuko dira:

1. Talde-dinamika: Emakumeen sufragioa Europan.


- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
- Elkarbizitzarako konpetentzia
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
- Norbera izaten ikasteko konpetentzia

2. Talde-dinamika: Emakume esanguratsuen infografiak.

- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
- Elkarbizitzarako konpetentzia
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
- Norbera izaten ikasteko konpetentzia

3. Talde-dinamika: Galdetegiak sortzen.

- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
- Elkarbizitzarako konpetentzia
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
- Norbera izaten ikasteko konpetentzia




Ebaluazioa



Konpetentziak ebaluatzeko irizpideak

	Bikain	Oso ondo	Ondo/Nahiko	Eskas
Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia	Oso ondo hautatzen du informazioa. Gaitasun handia du informazioa sailkatzeko, gordetzeko, laburtzeko eta zabaltzeko.	Informazio oso adierazgarria hautatzen du, eta oso ondo sailkatzen eta laburtzen du. Oso modu egokian zabaltzen du informazioa.	Badu informazioa bilatzeko zailtasunen bat edo beste. Askotan ez du informazioa ondo laburtzen edo adierazten.	Garrantzitsua ez den informazioa hautatzen du. Ez du ondo laburtzen, eta garrantzirik gabekoa azpimarratzen du.
Elkarbizitzarako konpetentzia	Ikaskideak entzuten ditu eta errespetua die.	Oso ondo lan egiten du taldeka. Enpatikoa da eta ikaskideei laguntzen die.	Taldean lan egiten du, baina ez beti.	Ez du taldea kontuan hartzen.
Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia	Bikain planifikatzen du bere lana. Proposamen berritzaileak egiten ditu. Gogo handiz egiten du lan.	Oso ideia onak ditu eta proposamenak egiten ditu. Gogo handia adierazten du.	Gorabeheratsua da, eta batzuetan proposamenak egiten ditu.	Ez du ideiarik ekartzen, ezta proposamenik egiten ere.
Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia	Komunikazioa bikain bideratzen du, hitzez eta baliabide digitalen bitartez.	Oso ondo komunikatzen da, ahoz zein baliabide digitalen bitartez.	Batzuetan zailtasunak ditu ahoz komunikatzeko. Baliabide digitalak erabiltzea kostatzen zaio.	Gabeziak ditu komunikatzeko, hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean.
Norbera izaten ikasteko konpetentzia	Bikain kudeatzen ditu emozioak. Bere emozioen kontzientzia du. Ikasitakoa bikain jartzen du praktikan.	Ikasitakoa oso ondo kudeatzen du, baita bere emozioak ere. Bere burua ezagutzen du.	Askotan galtzen du emozioen kontrola. Batzuetan ez du bere burua egoki ebaluatzen.	Ez daki bere burua egoki ebaluatzen, eta bere emozioen kontzientzia eta kontrola hobetu behar ditu.

Ebaluazioa



Irakaslearen ebaluazioa

Irakasleak honako hauek hartuko ditu kontuan talde bakoitzaren lana ebaluatzeko:

- HELBURUAK: adostutako helburuak bete diren
- EDUKIAK: sakontasuna, kohesioa, ulergarritasuna, originaltasuna
- HIZKUNTZA: zuzentasuna, aberastasuna
- AURKEZPENA: konposizio-aberastasuna, dinamika, freskotasuna

EBALUAZIOA	BALORAZIOA 1 > 3	IRUZKINAK
HELBURUAK	<input type="text"/>	<input type="text"/>
EDUKIAK	<input type="text"/>	<input type="text"/>
HIZKUNTZA	<input type="text"/>	<input type="text"/>
AURKEZPENA	<input type="text"/>	<input type="text"/>